LOTAZILLA
19
Eguena
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru ilz.
Bilbao'atazkua ... 11,25 » »
Idazki-itunmena ... 62,00 » urte
Atzerijetakuak ... 112,50 » »

Beldayen itunduba

XXIII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.171 zenbakija

ELERTI-INGOSKIJA

Olerki saila

ZOZKERA

Gabon-zozkera itxoten
amaika txiro ameski;
aduz aberastu guraz
gau ta egunez oldozki.

Txiro goguak tokirik ez
neke lanari igeska;
gabon-aurian bai-gabiltz
ainbat prakadun ta neska.

Gabon-jayetan mustau nai
olaŕ irendun gixenak,
urdala baño besterik
ezpa'leuko ba, gixonak.

Zozkera aduz aroki
alperkerijan bixi nai;
adu'k ostera, biguŕki,
uŕten ei-dautse geyenai.

Garate'taŕ J. M.

MOSU GARTSUA

Ene laŕosa aratz-goŕi,
Goiz argiaren leikide.
Nola ator ainbat alaiki
Ire bizitzaren goizez?

¡Oi, bilduŕ ni, Ozkoŕiren
Kutuna, Ez ete dakin
Alai oŕen laburtasun?
Goiz-pozori, aŕats-negaŕ don.

Pipiien edeŕak ezin
Eutsi Goikoaren esku?
¡Goizeko euzki-mosuak
Zein biozti ta emeak!

Orain akusat lirana,
Laster ¿ai! izpi gartsuaren
Muŕizte. Mosuren-mosus
Euzki'k zimel itxiko aun.

Zu zaitugu egun-sentia,
Gaztaroaren irudi,
Iiunts epelez ordea,
Udazken-aroarena.

Lili-buru oŕen ecer,
Loreko odol goŕi-garbi,
Azubil liraiu ta ire usaiñak
Ezin eutsi izan esku beltz?

Azkenez igaŕi gabe
Zimelik, oŕi orlegi
Margo ta arnaskaige ago.
Mosu-gaŕak oztu aun oro.

Egoak dirdiriz zabal
Ta bean ditun igaŕik.
¡Zein ur bizitz ta eriotz
Nere begion maitea!

Zalantzan naun ni, Ozkoŕik
Negaŕ ete zure eriotz,
Edo iŕi-baŕe yayotza,
Goizalde-malko iñontzetan.

Egurendi'taŕ Yoseba.

ETA ZU NERE ALDAMENEAN

Baldin banaiz
Pasatzen norbaitekin
Zure etxearen auretik
Diximuloekin
Diximuloekin
Biotzak giratzen dizkit
Jartzen dizkit
Begiak baseŕiarekin.
Baldin banaiz
Pasatzen bakaŕik
Zure etxearen auretik
Begira jartzen naiz zoraturik
Baseŕira begitik
Eta egon nai nuke nai
Egon nai nuke bai
Ango leyo zabalean
Ta zu nere aldamenean
Egon nai nuke nai
Egon nai nuke nai
Ango ate zabalean
Eta zu nere aldamenean
Egon nai nuke nai
Egon nai nuke bai
Ango sukalde edeŕean
Ta zu nere aldamenean.

Lotsati.

LO EGON GABE

Lo egon gabe esnatu zaite
gogoraturik gizona,
ludi au zer dan, zer dan bizitza,
zer dan txaŕa ta zer ona.
Atsegiñaren atzean zoro
beti ibili bagerik,
oaŕ egizu ez dakaŕala
ostean miña besterik.

Ekus bait degu oraingoa guk
une batean yoana,
igarokotzat etsiko dezu
orainetik eldu ez dana.
Ez da traungo, ez gerokoa
langoa naiño geiago,
au bezain arin yoango dala
erabakia bait-dago.

Ludi ontako gure bizitzak
ibaiak baiño ez dira;
goiz edo belu gustiak doaz
erio-itxas aundira.
Ara doazke txiro ta aberats
amaitu eta galtzera;
ara ezkero bardiñak dira
ibai gustien antzera.

Bizi au ez da bide bat baizik
ara gorako bidea;
zintzo yokatu bear da baiña
irabazteko bestea.
Yaioz bertatik urteten gara
ebili bizi artean,
bidez eginda ondoren elduz
eriotzagaz batean.

Emengo gauzen artean, esan:
betirakorik bai dago?
Ludian saŕi galtzen ditugu
il baiño bere lenago;
zoria edo adina dala,
geisoa edo negaŕa...
txiki nai aundik izango du bai
gustia utzi beaŕa.

Ekus ditugu eregeak ta
gizon aundi ta argiak...;
goiko ta beko il ziran eta
luŕpean datzaz gustiak.
Ez bait da ortan yauregikoa
artzaiña baiño gelago.
Goiko Yaunaren deia danean
beste biderik ez dago.

Gazte-aldiko txairotasuna
edeŕtasun ta margoa,
begi beltz polit ernai biziak
adats edeŕ ta naroa;
garai bateko leŕdentasuna,
iritxiz zahaŕ-aroa...
yoan ziranda, ¡oŕa non dauden!
orain agure-atsoa!

Gure gogoa aingerutzea
eskuan degun bezela,
gorputza oŕen eŕez edertzen
ba genu berdin ahala...
¡Berau apaintzen bai genuke guk
zeregin naiko ta lana;
bitarte ortan bertan beratuz
balio geien daukana.

Bizi ontako yolas, atsegin,
ian eta neke, agian,
zer da gustia bidea baizik
eta Erio azpian?
On ta txaŕaren ardura bage
dabil gizona lasaiki,
oŕen bestean erortzen da-ta
orduan ezin da yaiki.

Augaitik, bada, gabiltzan beti
ludian gauden artean
Zeruko Yaunak ipiñi digun
lege on eta donean.
Berak abindu digun bezala
eriotzako orduan
saŕ gaitezantzat zintzoentzako
daukan atseden-lekuan.

Sagaŕdiaga.

Oaŕa.—Bertso oneik eŕdel - eleŕtian ain ezagunak diran "Coplas de Jorge Manrique a la muerte de su padre" bertsoen araura egiñak dira.—S.

AŔANTZALE GAXOA...

SATAŔKA.

Negu beltz iluna da... ta aŕantzale artean
orain ezin bizia, gose aundi ta otza.
Eŕian danak ixil... surik ez sukaldean,
ta ume gaxoengatik amak itun biotza.

Itsasoa txar dago, guztiz asaŕatua...
ta aŕantzale azkaŕa ogia irabastera,
ontzi txiki batean, indarka, neketua,
an dijoa itsasora aŕaia aŕapatzera.

Ortzean odei beltzak, non-nai aize aundia;
itsasoa bofokari ari da mendiakin,
eta aŕantzale onak orain galdu bizia.

Etxean, ama bere umetxo kutunekin,
aita maitearen zai, jateko ogi zuria;
¡Aita betiko datza urpean aŕaiakin!

Sagartzazu'taŕ Kauldi.

Uaŕa.—Aspaldiko oleŕkari au, be, itxaftu yaku! Auxe poza! "Satarka" etzan eta ezta azkenengo maletakua. "Txinpartak" egin ebazanak, beste asko egin daikez. Geure txalua beti berakin ixanen dau.—L.

Gayak

TXAŔTO-EDO DABILTZ

Italia'ra begira jaŕi gara. Eta italiaŕai egin ixan dautseguen begiraldijan, ure-gose diranen antza aŕtu dautsegue.

Uŕe-gose oŕek Mussolini italiaren jaungoiko txikija, eskonduben atzamaŕetara begira imiñi dau, ta txoriño areik maŕe-abijaratu dabezan uŕezko erestunakaz jabetuten.

Ludirik geyenera gixabidia eruan ixan daben Italia aŕuarentzat, lotsagarizko uŕe-exa ori, aundiki-bixikeratik eskeko-bixikerara jaustia lez da, bere aŕokeriz txirotu dabezan eŕitaŕen azkenengo ondakiñaraño gustija, eske-bidez beraganduteko bide baŕi bat zabaldutia, eskekorik-eskekuanaren eske-bide itxusija da-ta.

卐 卐 卐

Mussolini'ren lateŕija uŕe-gose dala esan dauskube. Eta atzo, lotaziian 18 'garenan asi zirala lateŕijarentzako uŕe-bila.

Beraz, atzotik asita, italiaŕ ezkondubak, ezkontzeko erosi ixan dabezan erestunak, Mussolini'ri emon biaŕa dabe.

Uŕe-batze oŕi abeŕtzaletasuna detuten dautsoe. Eta abeŕtzaletasun ori agirijan imniteko, eredu bat biaŕ zan.

Abeŕtzale-eredutzat erakusten diranak, bakaldeŕijetan beintzat, bakaldunak ixan oi-dira. Eta onein artian eredu-indaŕik geyen daukana, bakanderea ixaten dala entzun ixan dogu.

Italia'n beñepein, oraingo Mussolini 'ren asmo bakan oŕek soŕtu daun abeŕtzaletasun baŕijaren eredutzat, abeŕi ikasi atako bakanderea agertu dauskube. Uŕe-gose dan lateŕijari, ezkontza-ikuŕa ta gomutakija dan uŕezko erestun edeŕa lenengo eruango dautsana, Italia'ko bakanderea ei-da-ta.

Bakandereari, "duque", "marqués", "conde" ta abaŕen emaztiak jaŕatuko dautsoe. Gero, baŕiz, aundikijak ikuŕaztu ixan dabezan oñatzen jaŕai, eŕi zeya juango da. Eta eŕi zeya aundiki -eŕija baño ugarijagua da-ta, Mussolini'ren jaungoikua dan lateŕira erestunik geyen eruango dabena ixango da.

¡Italia!, ¡Italia!, oŕen bera jausteko, ¿zer egin dautzube? Zeure zorijona zala uste ixan zendun Mussolini edo dalako ori iñoz ezagutu ixan ezpa'zendu, gauŕ beste zorijonik ixango zendun.

Baña, egun baten, zeure zorijona ixango zalakuan, etxeko atiak zabaldu zeuntsazan, eta zoritxaŕ-oxiñara eruan zaŕuz.

Etxe-baŕuko uŕiai gitxi eretxita, uŕe-bila auzora eruan zaŕuz... Abisinia'ra eruan zaŕuz... Abisiniataŕai euren abeŕijan ixan eben abeŕi-gentzea kendu -egin dautsazube, ta zoritxaŕik zoritxaŕena zeure burubari ezaŕi...

Iñoren etxera uŕe-bila juatia gebenduta dago, baŕiz. Izkiluben indaŕa auŕetik imiñita iñoren ogasunakaz jaubetuten juatia, be, galazota dago. Iñoren etxian gixa-erailketak egitia-ta, ezetsita dago. Oŕeik gauza gustijoik jakinda be, baña, Mussolini'ren aundikerijak, zuzentza - bide - esi gustijak apuŕtu ebazan, eta zuzentza-bidez gebenduta eukan lekura juan... Abisinia iru egunian austu ta bifintubaz, ango uŕe ta ogasun gustijakaz jabetuko zala uste eban. Eta txeŕen-uste ezeskaŕijoŕek Italia galdu dau.

Eta orain bere buruba galduta ikusi ixan dabenian, Mussolini buru-eretxijak, abisiniataŕai kendu ezin dautsen uŕia, italiaŕai kendu gura dautse; ezkonduben ezkontza erestunakaz jabetu gura dau, ezkontza-gomutaki mataganijoik urtuta gero, eurakin abisiniaŕak eraltzeko izkilu baŕijak egiteko.

Mussolini gixabide-edatzale buru-eretxijaren agiriko lana orixe da: sendijak deuseztutia; abeŕijak apuŕtutia, ezkondubak ezkontza - ezaugaŕi barik imintia. Eta deuseztze gusti oŕeik lateŕijaren ixenian egiten dauz, baŕiz: lateŕijaŕen, sendi, abeŕi ta ezkontzagañoko gustijak deuseztu.

Olango zuzentzaliak daukezan eŕijak Goikua'ren zigoŕa saŕi ixango dabe.

Ditadore-egaŕiz geidiaren eskubide gustijak zapaltzen dabiltzazan "katoliku" - ixendun Calvo ta lagunentzat, ikasbide edeŕa auxe.

Italia, berena etzan abeŕira juan zan; beriak etziran ogasunakaz jabetuten asi zan; geidiaren gentzea galtzen asi zan... Eta ¿zer irabazi dau?

Eŕeko sendija txirotu; etxeko gentzea deuseztu; etxeko semiak il, eta auzukuakin jabetuterik jaditxi ez.

Orain gentza-bila dabil... Baña len gentzea gura ixan ebanak; len gentzaz bixi ixan ziranai gentzea galdu ixan dautsanari, ¡ezetz! erantsun dautsoe, orain eztabela gentzarik gura...

Eta Italia aŕua, aŕokerijak itsututa itsumustuban saŕtu ixan zan lexatik urten ezinda, zoritxaŕ gustijen zoritxaŕ -lexan azkenengo ostikadak jaurtiten dabiiala esan leike.

Goikua'ren zigoŕa agirijan jaŕi yakala dirudi. Txeŕena aŕokerijak galdu ebala, eztaigun aiztu. Gixonaren aŕokeŕija baño ezeskaŕijagorik, ezebez.

Italia'ra begiratu dogu, ta Italia aŕua azken-arnasetan aurkitzen dala begitandu yaku...

Uribiŕarte'taŕ Ibon.

LEKEITIO

GABONAK DIRALA-TA, TXIRUEN ALDE.—Beste urtietan lez, aurten be, biaŕtsuentzat zerbait batu nai genduke, Gabon-jayetan poztasuna gustiok izan daigun.

Eta oŕetarako lanian asita gagoz, eta dagoneko aŕtu doguz emokun batzuk.

Ba-dakigu al dabentxua emon barik iñor geldiŕuko eztana, bai jaki-edari, soñeko nai dirutan.

Emakume Abeŕtzale-Batza'ko aginŕari dirianen etxietan aŕtuko dira gauzok, bestetako antzera.

Tira ba, lekeitiaŕok, erdue zeuen laguntasuntxuaz alik lasteŕen, jayok ganian doguz-ta.

Jaungoikua'k ordainduko dautzue, eta abeŕijak be bai.

Lekeitio'ko E. A.-B.

Euskerazko lenengo Pisikeatzaz

V

Legoŕizti'ko iztegija.—Legoŕ, legoŕki, iñoski ta oŕeik len aŕatubak doguz.

Suberotze: temple.—Temple itzagaz gazteleraz gitxijenez bi gauza adirazoten dabez: bata, galtzairuba berotu ondoren bapatian oztutia; bestia, onela egindakuan galtzairubak aŕtuten dauzan gogoŕtasun eta zailtasuna. Bigaŕen oni "gozo" edo gozotasuna esaten yako euskeraz; onelan templar el acero: galtzairuba gozotu, edo gozatu.

Tril: choque. — Eztot begiko, baña besterik eztagonez... "¿Alkaŕ-jotze" obeto ez ete?

Zailtasun: tenacidad, tensión.—Zailtenaz da, beraz zailtasun: tenacidad ondo dago; baña tensión ez. Onetatik gaztelera-ziaŕ zailtasun: voltaje, tensión, potencial eléctrica-ra jo dau, ta au neretzat txaŕto dago.

Biraztefkin, biltzainkin: giroscopio.—"Birayagonkin" nayago.

Zul[illegible]cola (para madera).—**Zulerask[illegible]** dago.

Tromp[illegible]trompa.—**Geure eŕijan "txiba" esaten dautsogu.**

Kiziazal: electrón.—Amabi-amairu ur te dirala "tximistapuŕ" irakuŕi neban; baŕei "ad litera" egi euskeratu-ta egotia.

LOBELIZTIJA. — Ostertzikuŕ: Nivel (instrumentro).—Itz onek elerti-kutsu geyegi dau izti-itza izateko. Gañera gazteleraz itz bakaŕa dan aŕen, parantzeraz bi dira: "niveau" ta "nivelle". Nivelle urez betetako leyaŕ-odiitxu okeŕtubari esaten dautse, ta euskeraz "urlau" esan leike (au ezta gero nik sorturikua); niveau baŕiz mendijen goibia neuŕtuteko ta erabiltzen diriaueri, ta "bardinkai" (Jauregi abearena dala uste dot) egokija litzake au itzultzeko. 166'gn. eta 138'gn. irudiko "nivel" oŕi baŕiz, goibeikustegi edo urikustegi esango neutsoke.

Saka: presión.—Amen be gaztelerearen txirotasuna ikusten dogu. Presión total sobre una superficie "saka" egiten ba'dogu, presión por unidad de área "sakatasun" egin leike, ta onela naspidia kentzen dogu.

Urtu: disolver.—Gero urtu: fundir be egiten dau. Geure eŕijan bijak darabilguz, ta gatza urtu, galtzairuba urtu esaten doguz; alan be, gatza "urtu" ta galtzairuba "galdatu" obeto dagozala uste dot. Lateratikua dogu "galdatu" itz au, baña antziñatxu euskeldunduba. Onela egin ezkero "urtzari": disolvente ondo dago.

Tutu: tubo.—"Odi" atsegiñago dot.

Asebete: saturado.—Onela uleŕtu dot; alan ba'da, ondo deritxot.

Neurton: normal.—Litro'ko ela-aztaki edo "mol" bat daunari esango dautso, poski. Ala ba'da, polita dago. "Nasai": diluído be polita da.

Ur motela.—Gatzik bakuari esaten dautso; gure eŕijan "ur geza" esaten yako.

Ur-yauzi: salto de agua.—Onetarako itz baŕ bat ba'dogu: "txuŕuka".

(Jaŕatuteko.)

ZATAŔA.

Oxin - baltza

Egun atan "Eŕota-zaŕa" basetxeko etxeko-andra gastiak, bere [illegible] bia goxian-goiz sutu eban; aste gustijan etxian biaŕko ebezan ogijak [illegible] egiteko asmuz.

Ta, andra gaste arek, oŕetan iñaŕdubala, ogi-orak labaratuteko [illegible] "¡eup!" didaŕa zoli-zoli entzun eban. —¡Ene; nor ete don!—esan eban—. [illegible] koxe ordu zeregintsubetan bai jentia gurera etoŕi...

Ta, nor ixan ete zeikianentz atia edegi ebanian, tayu oneko emakume [illegible] bat, umetxu polit bat besuan ebala ikusi eban. Emakumia, bere umetxo[illegible] eskeko-antzian agertzen zan.

—Emakume ezezaguna, zer biaŕ dozu, edo zer eskatzen dozu?—. [illegible] andriak artega itandu eutson.

—Andria, etxeko labia ontxe bertan sutu dozun ezkero, gosez negaŕez [illegible] kitzen dan umetxu samuŕ onentzat, ogi-opil eŕe-baŕija bijotz-bijotzez [illegible] dautzut. Opiltxu bigun bat bein emongo dautsazu ¿ezta? Gosez negaŕez [illegible] gaxua...

—Bai, zegozertxu emongo dautsat bai... Gosez dago ¿ezta? Gaiza [illegible] umiaren poliña...! Itxaron apuŕtxu baten ba, opiltxu bat edo, geruago [illegible] dautzubet eta—. Eŕotako andriak abots artegiaz erantzun eutson.

Eta eskaratzera iraduz juanda, titara-bete urunegaz ogi-opil txiki-txiki [illegible] oztaz egiteko lain ora egin eban; eta umetxubari emoteko ustez da [illegible] egiñiko opil-oria, enparau ogijen aŕtian laban saŕtu eban.

Andik gerora, andriak, ogi-opilak naiko eŕeta egongo ziraia-ta, [illegible] abora iraduz juan zan; eta, ondo eŕeta aro-onez aurkitzen ziran ogijak, [illegible] -banan kanporatzen ìasi.

Batzuk eta bestiak edeŕak zirala ¡arek bai ogijen "bendenkatuak"! [illegible] labaldirik edo labakadarik, andra arek bere bixijan egundo ezeban [illegible] zala-ta, pozez eguan.

Ogijak labatik atara ta atara, pozaŕen ebiian bera; ta oŕetan ekitaldi [illegible] pozago egiten zan gaxua. Ekin eta ekin, alako baten, enparau ogi-opilak [illegible] poratuta gero, titara-bete urunegaz umiarentzako egin eban ogi-opiña [illegible] eban. ¡Eta orduan andriaren ikaria! Titara-bete urunegaz egiñiko opil-[illegible] kija, beste ogi-opil gustijak baño askozaz andijagua ta edeŕgua zala, [illegible] giz ikusi eban eta.

—¡Onakorik!—iñuan—. Au don opilen edeŕen-edeŕa...! Labako-[illegible] -eginda be, onako ogi-opil edeŕik begi-aurian egundo etxunat euki. Beste [illegible] tijak baño edeŕagua ta andijagua don ba-ta... ¡Onakorik eta onakorik! [illegible] -bete urunegaz egiñiko ora apuŕaz, onako ogi edeŕa, zelan egin leiken [illegible] Oŕa oŕ, untzia ta muntzia... Tamaletan-tamalena baña, ogirik edeŕena [illegible] tzena, or atian daguan eskeko-umiari emon-biaŕa... Oŕi umekondu oŕen [illegible] tia baño, etxerako gordetia oba ixango don oŕatik... Etxian zer biaŕa [illegible] Ganera baŕiz, au beti emoten ibiltia baño gauza gogaikaŕijagorik! Lenga- [illegible] tian be, eskeko bateri, berakatz-atal edeŕ bat emon neutson; igaz ostera, [illegible] bateri lau baba-garaun oso-osuak, eta atzo bertan aguretxu zaŕ-zaŕ batez [illegible] pia ixotuteko ilinti-biztua, eŕuki andiz eskuratu neutson. Olan ba, geyago [illegible] ri ezer emon ezaŕen be, neure bijotz samuŕa, emen ingurubetako bijotzik [illegible] ena dala edozeñek uleŕtu ta esango leuken. Umetxu oŕeri, opil onen oŕdeko [illegible] te ogi txikijago bat be emongo neuskijon, bere sabeltxu gosia zelan eta [illegible] asetu dagijan be... baña olan be, etxerako bat gitxiago... A... ama-semiak [illegible] dalakuok, beste etxe batera juanda ango atia jo begijien. Etxian zer biziki [illegible] oŕeri emoterik etxagon...

Eta andra zekenak, umiari ezer emon ala ez, ebatzi eziñik aldi luzez [illegible] oldoztuten egonda gero, iñori ezertxu be ez emotia erabagi eban.

Eta ataŕtera arinka juanda, emakumiari esan eutson.

—¡Jaungoikuak lagun! Emen ezertxo be eztaukozube; ta zuaze [illegible] batera...

Ori entzunik, eskeko emakumiak "bai, Jaungoikua lagun" esanaz [illegible] laztan gozo bat emon eutson; eta, eŕotako andra zekenari begi-gozoz [illegible] giratuta gero, bere umetxuba besuan ebala mendija-ziaŕ abijau zan.

MAŃARIKO.

(Jaŕaitzeko.)

Ontzako urrea

Arritokieta

Hem'taŕ Luki'k ikusi zuanean bere azkeneko eun laurlekoko diru papera, ruleta joku mai-gañetik bankeruak bere eskubariakaz aŕtuta eraman zuala, orduantxe konturatu zan bere diru gustiak galdu zituala.

Gau artan —Gabon gaba— batu zituan bere txindi gustiak eta gudara bezelaxe juan zan joku etxera, edo zearo aberastu edo zearo txirotuteko asmoz.

Baña beriak egin zuala ikusi zuanean, burua zorabiotu zitzayon eta bela jo beaŕ zuala uste izan zuan.

Burua bira-biraka eta ankak dar -daŕ zitualarik, aretuen orman zegoan naŕuzko jaŕlekura juan eta etzan egin zan. Unetxo batean galerazotako jokua egiten zan mai galgaŕian [illegible] ratu zion, bere gaztetasuneko [illegible] onenak aiper-aiperik galdu zituan [illegible] ari, ikusi zituan beste jokalari [illegible] pegi zurbiiak iru argi aunuk [illegible] argituak; entzun zuan ontzako [illegible] alkaŕ jotzean ateratzen zuten [illegible] igeŕi zuan galdua zala, eta bat [illegible] an, bere etxeko armario batean [illegible] deta egon oi zan sutizkilua [illegible] zitzayon, bere aitaren sutizkilos [illegible] dari nagusia bai zen aita—, eta [illegible] txo nekatuta lo zoŕoak artu zuan.

Esnatu zanean, aoko gusto [illegible] zeukan, burua beŕiz astuna, eta [illegible] neuŕiari begirakada bat egiñaz, [illegible] erdi besterik ez zuala lorik egin [illegible] zuan, eta kanpoko aize garbis azkar [illegible] bearizan aundia zeukala ikusirik, [illegible] batera sutinau zan.

Amabiak laurden gutxiago zirau [illegible] kuko aretoan. Bat batean Luki'k [illegible] goratu zuan Gabon gaba zala, eta [illegible] tiltxoa zanean oeratu baño len [illegible] oñetakoak su ondoan noia jarri [illegible] tuan burura etoŕi zitzayon.

Erten zuan jokuko gelatik, arin [illegible] tuan bere txapela ta berokia eta [illegible] kalera malak laister igaro zituan, [illegible] roa dutenak ibiltzen diran arintasun [illegible] akin.

Luki'k jokuan jardun zuan lau [illegible] du ayetan, eluŕa egin zuan gogotik [illegible] kalea—Paris zaŕeko kale bat, [illegible] eta etxe garayak alde bietatik [illegible] ana—, dana zuŕi-zuŕi zegoan. [illegible] beŕiz beltz-urdin, eta noizean behin [illegible] batek diz-diz zegian.

Jokalari galduak sartu zituan [illegible] ak patriketan eta arin-arin asi [illegible] kalian gora bere buruagan itxaspen [illegible] gustia galduta, eta etxean bere [illegible] goan sutizkiluen irudia begien aurrean [illegible] zuala. Baña oinkada batzuek eman [illegible] tuanean, bat-batean geldiiu zan [illegible] pen negargaŕi baten aurean.

Antziñako erara etxe aundiak [illegible] ondoan izan oi duten aŕizko jarlekuan, sei edo saspi urtedun neskatx [illegible] bat kuxkulduta eluŕ-gañean lo zegoan.

Soñeko beltz zaŕ bat besterik [illegible] an soñean, eta bere burutxoa ta [illegible] balda polita ormaren sokondoan [illegible] tuta zeuzkan, eta gau artako ots [illegible] ragaŕi ura gora bera lo zegoan [illegible] gaxoa aŕiai negaŕ eragiteko eran.

Umeak soñean euki zuan [illegible] bat, bere ointxo politerako aundi [illegible] zalako edo, aŕisko jarlekutik [illegible] lika zeukan onaren parean, luŕera [illegible] rita zegoan.

Luki'k bat batera eskua sakelera [illegible] tu zuan baña sakelean ez zeukan [illegible] ere eta laister gogoratu zan pixka bat [illegible] lentxoago, joku-etxeko moŕoiari [illegible] ñarik emateko ere ez zuala diru [illegible] euki.

Ezin zezakean ordea andik [illegible] umetxo ura bertan bera lagata, [illegible] bere besoetan artuta etxera [illegible] eta gaba igarotzeko oe batean [illegible] ko zuala oldozturik umetxoarengan [illegible] uŕeratu zan.

Baña umea besoetan aŕtzeko [illegible] pixka bat auŕentza okertu zanean, [illegible] ean zegoan zapataren baŕuan, [illegible] bezela diz-diz zegian gauza ori [illegible] ikusi zuan.

Ontzako uŕea zan. (Daŕaika.)

Maitasnna ezaugarri

Iges egin dausku maitasunak. Maitasuna zerutaŕa dogunaŕen luŕekuontzat be ba-da. Yosukisto'k bere yaŕaitzalien ezaugaŕitzat izentau eban maitasuna. "Alkaŕ maite ba' dozue, yoko zaituez neure yaŕaitzaletzat.' Askoñ izan gura dogu Yosukisto'ren yaŕaitzale. Esan be, saŕi esan daroagu. Benetan ete-gara, baña? Geure ezpañetan ba rik, geure biotzetan ote-darabilgu maitasuna? Eta, batez be, geure eginkizunen oñaŕia ete-da maitasuna?

Urte oneitan ikasi dogunez, maitasuna baño nagusiago yabilgu goŕotoa. Ezkeŕtaŕak eta eskumataŕak goŕoto bidietan ziaŕ doyaz. Eskumataŕak, Yosukisto'ren yaŕaitzaliak, euren aŕtian asaŕetuta ageŕ yakuz. Saŕiegi, ezkeŕtaŕakaz baño be asaŕeago. Itzik laŕienak, irañik latzenak, goŕoto-amorik irakiñenak alkaŕentzat gorde daroez eskumataŕak.

Egoera onen ondorenak yakiñak dira. Goŕotoaren zenian katolikotasuna beratu, azpiratu; ta politika arazoak katoliko-arazoen gañetik yaŕi dira. Eta azkeneko au egi-egia dala esateko edo, ikusi dogu ainbat izpaŕingietan katoliko baten esakera tamalgaŕia. Belaŕiak be minberatuak doguz esakera aren sarata lazkaŕigaz.

Gauzak baña, eztira gure asmo bereziaren arauz egiñak eta antolatuak. Yaungoikoa dogu guztion gañetik. Eta Yaungoiko oŕek ordezkoa dau ludi onetan "egiaren aga ta oñaŕi" Yaungoiko ordezko dan Doipuruak, politika arazuetan bein eta biŕitan idatzi dau. XVI Gergoŕi'ren "Mirari Vos", XIII Lon'en "Quod Apostolici Muneris", "Diuturnum", "Cum Multa", "Inmortale Dei", "Libertas", "Sapientiae Christianae", "Au milieu", XI Pi'ren "Dilectissima nobis" eta beste idazki berezi ta Gotzañen idazkiak yakingaŕirik asko dabe danontzat.

Jaso daiguzan beraz guztion onerako Doipuruaren irakaspenak.

Elizazkiko ta gizonezkiko arazuen arteko artu-emonak

"Politikeari yagokon alderdien bat eta uskurtza alkaŕ nastau ta bat egiten dabezanen okeŕezko eritxia be alde batera itsi beaŕ da. Eta izan be, beste alderdi baten yaŕaitzalia eztabe-edo katolikotzat yotzen eritxi ori dabenak. Au ordea, uskurtz-arazo galenetan alderdikeriak okeŕez sortarazotzia da, anai-batasuna uŕatutia eta zorigaiztoko ezbeaŕ askori bidiak idegitia."

Elizazkiko ta gizonezkiko arazuen aldea

"Gizonezkiko arazuak, eratsu ta gaŕantzitsu izan aŕen be, eztabez, eurenez ludi onetan dogun bizitza-mugak gainditutzen. Erlijiñoak baña, Yaungoikoagandik yayo, ta dana Yaungoikoagana artezten dabenen, gorago igoten dau eta eldu be, zeruraño eldu. Auxe berau gura dau erlijiñoak, onexen bila dabil: arimia, gizonaren atalik bikañena, Yaungoiko-ezagueraz eta maitasunez ase, eta gizadia "geroko urira" eskierdi eroan; uri oŕen bila bai'gabiltz guztiok.

Bidezkoa da oŕetxegaitik, erlijiñoa ta erlijiñoari bereziki yagokozan gauzak goraingo malakoak lez izatia. Zer adierazoten dau onek? Erlijiñoak, onik onena danez ludi arazuen aŕteko aldaketetan eta abeŕi -naspiletan be azke irten biaŕ dabela; aldi ta toki guztien gañetik baitago. Eta alkaŕen aurkako alderdien yaŕaitzaleak, bestelako arazuetan asmo bardiñekuak ezpadira be, eritxi batekuak izan biaŕ dabe arazo onetan: biaŕekua dala erlijiñuari yagokozan gauzak abeŕietan gaizkatutia. Eta biaŕeko akintza nagusi oni, alkaŕgo deunean batuta lez, eldu biaŕ dautse, katoliko izenaz burua goresten dabenak, politikeari yagokozan eritxi bardingeak apaiŕtxo batez alde batera itsiaz. Alan da be baña, alderdi ori leikez eritxi oŕeik, eraz eta bidez, eurai yagoken malan. Elizak eztauz gaitzesten onelango alderdi-eritxiak, erlijiño ta zuzen bidetik atetikoak ezpadira. Aitzitik be, eztabaida-zaratetatik uŕin, lanean diñardu guztion onerako, ama-maitasunez maite dauz gizon guztiak, siñispen eta eraspenez geyen nabarmendu ziranak bereziki maite ba'dauz be."

MIKELETS